

## Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,7 jaitsi dira 2022ko uztailean


**Urte arteko terminoetan, 2022ko uztailean 2021eko uztailaren aldean, kostuak % 10,6 igo dira**

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizea % 0,7 jaitsi da 2022ko uztailean, aurreko hilaren aldean. Aurreko urteko hil beraren aldean, kostuak % 10,6 igo dira.

Obra Zibileko kostuak % 2,1 jaitsi dira hil artean, eta Etxegintzaren sektorekoak % 0,4. 2021eko uztailarekin alderatuta, prezioak % 14,1 igo dira Obra Zibilean eta % 9,9 Etxegintzan.

### Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasak sektoreka

Ehunekoa



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren, 2022ko ekainaren, aldean, **lehengai**en kostuak % 0,9 jaitsi dira, eta **eskulan**aren kostua, ordea, egonkor mantendu da (% 0,0). Urte arteko terminoetan, lehengaiaren kostua % 12,2 igo da, eta eskulanarena % 5,8.

Etxegintzaren sektorean lehengaien kostua % 0,5 jaitsi da hil artean, eta Obra Zibilarenean % 2,7. Urte arteko bilakaeran, Etxegintzako lehengaien kostuak % 11,2 hazi dira, eta Obra Zibilekoak % 16,6.

## Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Uztaila 2022

|                   | Indizea      | Aldakuntza (%) |             |
|-------------------|--------------|----------------|-------------|
|                   |              | m/m-1          | m/m-12      |
| <b>Guztira</b>    | <b>120,4</b> | <b>-0,7</b>    | <b>10,6</b> |
| Eraikinak         | 119,7        | -0,4           | 9,9         |
| Obra zibila       | 123,5        | -2,1           | 14,1        |
| <b>Lehengaiak</b> | <b>121,5</b> | <b>-0,9</b>    | <b>12,2</b> |
| Eraikinak         | 120,6        | -0,5           | 11,2        |
| Obra zibila       | 125,6        | -2,7           | 16,6        |
| <b>Laneskua</b>   | <b>116,7</b> | <b>0,0</b>     | <b>5,8</b>  |

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Abuztuaren 26a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioetan, 2022ko uztailean igoera handienak izan dituztenak, 2021eko uztailearen aldean, sektore hauetan dira: *Petrolio*a fintzea (% 65,3 gora), *Energia elektrikoa eta gasa* (% 48,2) eta *Metalurgia* (% 32,1). Lehengaien prezioetan igoera neurritzkoenak izan dituzten sektoreak, aldiz, honako hauek izan dira: *Altzarien fabrikazioa* (% 4,8ko igoera) eta *Material elektrikoa eta Makineriaren fabrikazioa* (% 5,0ko igoera bi kasuetan).

## Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p). Uztaila 2022

|                                  | m / m-12 |
|----------------------------------|----------|
| Ezmetalezko meak                 | 5,5      |
| Zuraren eta kortxoaren industria | 18,7     |
| Petrolioaren fintzea             | 65,3     |
| Industria kimikoa                | 29,5     |
| Kautxua eta plastikoa            | 6,9      |
| Produktu mineral ez-metalezkoak  | 16,6     |
| Metalgintza                      | 32,1     |
| Metalezko artikulak              | 11,4     |
| Material elektronikoa            | 8,3      |
| Material elektrikoa              | 5,0      |
| Makineriaren fabrikazioa         | 5,0      |
| Altzargintza                     | 4,8      |
| Energia elektrikoa eta gasa      | 48,2     |

Oinarria 2015=100

(p) Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2022ko Abuztuaren 26a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

### Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62